

Hondar Ahua

guraso elkarte



ESKOLAZ KANPOKO EKINTZEN ARAUDIA:

- 1) Ume batek eskolaz kanpoko ekintzetan izena emateak, guraso edo tutorearen aldetik araudi hau onartea suposatzen du.
- 2) Ekintza bakoitzak gutxiengo eta gehienezko partehartzaile kopuru bat izango du: 8 -15 lagun bitartekoa. Kopuru hau ekintzaren arabera aldatu daiteke.
- 3) Izena eman dutenen kopurua, eskeinitako plazen kopurua baino handiago bada, guraso elkarte beste talde bat sortzen ahaleginduko da baina ezinean:
 - Izen-emate ordena errespetatuko da, horretarako web bidezko izen emateak hobesten ditugu, data eta ordua agertzen direlako.
- 4) Eskolaz kanpoko ekintzak urriaren 1ean hasiko dira, eta maiatza bukaeran amaitu. Eskolaz kanpoko ekintzak eskolako egutegira moldatuko dira.
- 5) Eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzeko guraso elkarteko bazkide kuota ordainduta izan beharko da aldez aurretik.
- 6) Ekintza bakoitzaren prezioa urtero ezarriko da, ume kopuruaren arabera, baina gutxi gora behera aurreko urtekoa izango da. Ekintzaren ikasturte osoko kuota urrian ordaindu daiteke, edo nahiago duenak bi alditan, erdia urrian eta beste erdia otsailean. Kuota gehiago zatitu nahi izanez gero, jarri harremanetan guraso elkartearekin.
- 7) Ekintza batean ikaslearen izena eman eta behin ekintza martxan jartzen denean, ikasleak ikasturtearen edozein unean ekintzari uko egiten badio ere, kuota osoa kobratuko da.
- 8) Epez kanpoko izen emateak: soilik plaza librerik balego onartuko dira eta beti ere ikasturte osoko kuota ordaindu beharko da.
- 9) Eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen duten ume guztiek aseguru berezi bat izaten dute. Polizaren kopia bat nahi izan ezker, eskatu zaldupekogurasuk@gmail.com helbidean.

